

Urrengo batzarra Donostia'n, datorren Orrilaren 29'an egitea erabagi da, ta Gerra jaunak Gipuzkoa'ko "Comisión de Monumentos"-eri batzar ori egiteko bere gelea eskatu dagiola ebatsi da.

Azkenez "Junta de Cultura de la Excelentísima Diputación de Vizcaya"-ri Euskaltzaindiaren barrizkuntza onen barri ta bere laguntasun pozgarriagaitik esker biotzekoa emotea erabagi da.

Beste barik oitura-otoitzez amaitu da batzarra.

Euskaltzainburua

R. M. AZKUE

Zadorlaria

NAZARIO OLEAGA

* * *

Donostia'n, 1941'gko, Orrila'ren 29'an, Euskaltzain oneik batu gara: Azkue, maipuru; Urkijo, Gerra, Zamarripa ta Oleaga, euskaltzainak.

Araudizko otoitza egin da.

Azkenengo batzar-agiria irakurri da, ta agobatez onetsi.

Azkue jaunak adierazoten dau, lenago erabagi zanez, Eladio Esparza jaunari jakin erazo dautsola euskaltzaintzarako aukeratua izan dala, ta bere erantzuna, kisa ori beregain pozik artzen dabela, izan dala, bide batez, bere eritiz, bigarren naparro euskaltzaina Angel Irigarai jauna izan daitekela, esanaz. Ganera, Azkue jaunak dino jaun oneri kisa ori eskini dautsola, bafia, bere eskarrak agertuaz, oraingoz ezabela artzen erantzun dabela. Aitzaki barik artu dagiala eskatuz, barriro eskini dakiola erabagi da.

Azkue jaunak, lengo batzarrean asiriko lana irakurten daragoio. Pozik entzun da, ta batzarkideak oartzoren batzuk egin dautsez.

Beste barik eta urrengo batzarra Bilbao'n Bagile'ko 26'an egin dedila ebatsi ta, oiturako otoitzez amaitu da batzar au.

* * *

Bilbao'n 1941'gko. Bagila'ren 26'an, Euskaltzaindia'ren etsean batzen dira Azkue, Urkijo, Irigoyen, Zamarripa ta Oleaga euskaltzain jaunak, Azkue jauna maipuru dala.

Araudizko otoitzaz asten da batzarraldia.

Azkenengoz egindako batzarraren agiria irakurri da ta agobatez onetsi.

Erdera-euskera iztegi barriaren lanen barri emoten da. Onezaz, Azkue jaunak dino, Euskaltzain-urgazle zan Gorostiaga jaunak orri batzuk eroan zituala, ta eskatu dakiozala erabagiten da.

Irigoyen jaunak adierazoten dau Antonio Tovar, "Consejo Superior de Investigaciones Científicas, Instituto Antonio de Nebrija"-ko jaunak, idazki bat bidaldu dautsala euskera ikaskuntzaz asmoren batzuk aitatuturik. Idazki ori irakurri ta, Irigoyen, Urkijo ta Azkue jaunak, Tovar jaunagaz alkartu daitezala ta asmo arezaz zer egin leiken ikusi dagiela erabagiten da.

Azkue jaunak aurreragoko batzarretan irakurten asi zan lanean daragoio.

Eta beste barik araudizko otoitzez amaituten da batzarraldi au.

* * *

Donostia'n 1941'gko Iraila'ren 25'an "Comisión de Monumentos" deritxon baltzuaeren gelan batzen dira Azkue, Urkijo, Inzagaray, Gerra, Zamarripa, Irigoyen ta Oleaga euskaltzain jaunak, lenengoa maipuru dala, il oneri dagokon batzarra egiteko.